

URTARRILA
2021

Lanberriak

ccoo.eus

**ZAINZA
ETA
GIZARTE
ZERBITZU
PUBLIKOAK
INDARTU**



MOBILIZAZIOAK

Bilbao - 10:30

Pio Baroja plazatik

Donostia - 11:00

Bolulevardeko kioskotik

Gasteiz: - 11:00

Los Guardias plazatik

URTARRILAK

26

GREBA

Herri sano batek gizarte zerbitzuak eta zaintza zerbitzu sendoak behar ditu, egoera bereziki ahuletan dauden pertsonen beharrei erantzuteko.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak egoera horietan aurre egin behar dio prebentzioari eta esku-hartzeari, baina kudeaketa pribatuko sistema publikoa dugu, oinarritzko beharrak gutxieneko kalitate baldintzetan betetzen ez dituen.

Zerbitzu hauen pribatizazioak lan prekarietatea dakar, gehiegizko lan kargari gehituta leuntza zerbitzuen erantzun eraginkorra oztopatzen duena. Egoera hau aspalditik dator, baina Covid-19ak ergaindako pandemiak agerian utzi du zaintza eta gizarte zerbitzuen garrantzia.

Administrazio publikoa da egoeraren ardura hartu behar duena. Eta horren erantzunik ezean, gizarte eta zaintza zerbitzuetako sektoreko langileak, urtarrilaren 26an, grebarekin bat egitera deitzen ditugu. Aldarrikatzen dugu:

- Gizarte eta zaintza zerbitzu hauek zuzenean administrazio publikoak ematea, ratioak handituz baldintza onetan kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko.

- Hitzarmen kolektiboak berritzea, langile gehiagorekin eta hauen osasunaren babesa hobetuz.

- Gizarte eta zaintza zerbitzu publiko, unibertsal, doako eta kalitatezkoak eduki ahal izateko finantzazio verme nahikoa.

- Ezkutuko ekonomian daduen etxeko langileen arauketa eta LANEren 189 hitzarmena berrestea.

- Europako eskubideekin bat etorriko den negoziazio kolektibo eremua eratu eta etxeko langileentzat sektoreko hitzarmen kolektiboa sortzea.

- Etxeko langileentzat, langabezia (ez koiunturalki, oraintxe dagoen bezala) eta 55 urtetik gorako prestazioetarako sarbidea.

